


ZINTZURREAN  TINKI TINKIA

NORBAIT hiltzekotan, PATROIA hil zezakeen,
ORDEA ERIZAINA DU AKABATU

LANGABEZIAN ez baitzegoen JOSE DIEGO,
OPUS DEIKO KLINIKAN PSIKIATRA IZANKI

ETA HAREN OBRAK JO ZEZAKEEN EPAIKETARA,
EDO ETA UDALAK, ETA DIPUTAZIOAK ... ETA EZ
NAGORE EZ ZUEN ORUBE BATEAN ITO,
ITURRAMAKO bere pisu ZENTRIKOAN BAIZIK,
NAHIZ ETA GORPUA ERROIBARKO SASIETARA BOTA
ONDOREAN

EPAIKETAN hiltzaileak egia konta zezakeen,
DAMU BAZEN BEHINIK BEHIN ...
... ETA EZ DU EGIN NAHI IZAN

EPAIMAHAIKIDOAK ez ditu nonbait KOLPATU
BIKTIMARI EGIN ZIZKION TXIKIZIO ETA URRADURA
BILDUMAREN ZERRENDATZEAK ~ 40 INGURU

EPAIA EMAN ZUTEN EGUNEAN
BERTZE NONAHI NINDAIKEEN IGORREN edo
LEXANTZUN BAINA IRUÑEAN NINTZEN, ETA
DEFENTSAKO ABOKATUA IKUSI EGIN DUT
GINTONIKA, OSPAKIZUN PROFESIONALEAN

AHAL LUKE, edozeinek ez baititu
HAREN ZERBITZUAK PAGATZEN AHAL